



HERRI-DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUA

CONSEJO VASCO DE FINANZAS PÚBLICAS

Vitoria-Gasteiz, 13 de febrero de 2017ko otsailaren 13a

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak aurten ospatu duen lehenengo bileran, datozen gaien erabakiak onartu ditu:

En su primera reunión de este año, el **Consejo Vasco de Finanzas Públicas** ha adoptado hoy los siguientes acuerdos:

- 1º. Cierre de recaudaciones por tributos concertados del ejercicio 2016.
2016 ekitaldirako zerga itunpea bidezko dirubilketaren itxiera.
- 2º. Liquidación de Aportaciones de las Diputaciones Forales para el ejercicio 2016.
Foru aldundiek Eusko Jaurlaritzari 2016 ekitaldian egin beharreko Ekarpenen likidazioa.
- 3º. Liquidación del Fondo General de Ajuste del ejercicio 2016.
2016 ekitaldirako Egokitzapenerako Funts Orokorren likidazioa.

2016 urtean zerga bilketaren itxiera / Cierre recaudación tributaria ejercicio 2016

ZERGA ITUNDUEN BILKETA 2016 EKITALDIAN

2016 ekitaldia ixtean, Foru Aldundiek egindako **zerga itunduen bilketa kontsolidatua** 12.950,70 milioi eurokoa izan da; tasa horren urte arteko aldakuntza % 2,7n kokatu da, eta joan den urrian egindako aurreikuspenaren gainean % 99,4n bete da.

Joan den urrian ezarritako aurreikuspenari dagokionez, zuzeneko zergek espero zena baino abantzu handiagoa egin dute: aurreikusitako % 2,4ren aldean, % 3,5. Zeharkakoek, aldiz, % 1,9 besterik ez dute egin aurrera.

ZUZENKO ZERGA

Zuzeneko zergei dagokionez, haien neurrizko abantzia (% 3,5) PFEZaren bilakaeran oinarritu da, batetik; eta, bestetik, Ez-egoiliarren Errentaren Zergan Estatuarekiko erregularizazioa egitean gutxiago itzuli izanean, aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero.

PFEZaren bilketak % 4,1eko azken hazkunde-tasa erregistratu du. Portaera horretan islatzen dira 2015eko errenta-kanpainaren emaitza positiboa eta Lan Etekinen gaineko atxikipenek (% 2,8) eta ordainketa zatikatuek (% 2,3) egin duten neurrizko abantzuak. Gainerako osagaiek –funtsean Kapital Etekinek– Estatuak zerga-tasetan onetsitako beherapenen eragina jasan dute, eta interes-tasa txikiek bere horretan jarraitu izanarena; beraz, aurreko ekitaldikoak baino sarrera txikiagoak erregistratu dituzte.

Kapital Etekinen eta Ondare Irabazien gaineko atxikipenen bilakaera negatibo honek izan du bere isla Sozietateen gaineko Zergaren azken bilketan ere, %3,5 jaitsi baita.

ZEHARKAKO ZERGA

Zeharkako zergetatik etorritako bilketa % 1,9 igo da; eta, beraz, urrian egindako aurreikuspenetik (% 4,1) urrun geratu da.

Desbideratze horren arrazoi nagusia izan da BEZaren azken joera, guztizko bilketa % 1,4 hasi baita, eta horrez gero, % 97,8 baino ez da izan betetze-maila aurreikuspenarekiko; hau da, aurreikusitakoak baino 110,2 milioi euro gutxiago. Aipagarria da kudeaketa propioko BEZaren bilketak izandako hazkuntza txikia (% 0,9).

Aurreko

urtean

bezala, prezioek energiaren arloan izan duten bilakaerak –batez ere urtearen lehen zatian– eragotzi egin dio zerga honengatiko bilketari kontsumoaren dinamika positiboaren ildo beretik haztea.

Nahiz eta Estatuaren esparruan, azaroan argitara emandako datuak ikusirik, barne-eragiketen BEZak portaera hobea izan duen –% 2,9n kokatu baita–, beste alde batetik, ikusten da jarduera ekonomikoaren hobekuntzak neurri handi batean inportazioen gehikuntza sorrarazi duela; eta, hori, inportazioen BEZak izan duen % 9,9ko gorakadan islatzen da.

Ondasun-kontsumo espezifikoaren gainean ezarritako zergarik garrantzitsuenen artean, Hidrokarburoen g/ Zerga Bereziaren bilketak izan du joera ona (% 4,0), eta, aldiz, Tabako Laboreen g/ Zerga Bereziaren bilketak (% -1,7) behera egin du. Fabrikazio Zerga Berezien eta Elektrizitatearen gaineko Zergaren bilketa orokorrak % 2,3ko aurrerapena izan du.

RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS. CIERRE 2016 / ZERGA ITUNDUEN DIRU-BILKETA 2016KO ITXIERA				
	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TOTAL / GUZTIRA
IRPF / PFEZ	746.779.825	2.531.121.379	1.561.946.207	4.839.847.411
I. SOCIEDADES / SOZETATEEN g/Z	152.865.683	600.730.121	249.106.711	1.002.702.515
IVA / BEZ	821.359.509	2.539.294.601	1.653.750.710	5.014.404.820
I. ESPECIALES FABRICAC. e IE DE ELECTRIC./ FABRIK. Z. BEREZIAK eta ELEKTRIZ./ZERGA	228.689.321	707.010.208	460.450.171	1.396.149.700
RESTO TRIBUTOS / GAINERAKO ZERGAK	88.253.438	336.947.884	272.420.472	697.621.794
TOTAL / GUZTIRA	2.037.947.776	6.715.104.193	4.197.674.271	12.950.726.240

LURRALDE HISTORIKOAK

	Behin betiko bilketa (Milaka €)		LHEKren aurreikuspena 2016 Urria (Milaka €)		Diferentzia (Milaka €)
	2016	Ald. % 2015 g/	2016	Ald. % 2015 g/	Itxiera- aurreik.
Araba	2.037.947,78	2,2%	2.054.539,93	3,1%	-16.592,15
Bizkaia	6.715.104,19	3,1%	6.736.181,74	3,4%	-21.077,54
Gipuzkoa	4.197.674,27	2,3%	4.234.365,73	3,2%	-36.691,46
	12.950.726,24	2,7%	13.025.087,40	3,3%	-74.361,16

2016 urteko Ekarpenen Likidazioa Liquidación de las Aportaciones de 2016

2016 ekitaldian ordaindutako **Kupoari** dagokionez, 763,7 milioi eurokoa izan da. Hartara, zerga-bilketaren itxiera eta Kupoaren ordainketak ezagutu eta behin, Erakunde Erkideetarako Ekarpinak kalkulatu dira –indarreko arautegiaren arabera. Azken zenbatekoa 8.734,5 milioi €-koa izan da, hasieran aurreikusitakoa baino 368,4 milioi € gutxiago.

LIQUIDACIÓN 2016 / 2016ko LIKIDAZIOA				
APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES AL GOBIERNO VASCO EN 2016 2016ko FORU ALDUNDIEK EUSKO JAURLARITZARI EGIN BEHARREKO EKARPENAK				
				€
	ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TOTAL
<i>Coeficiente aportación 2016</i>	16,38%	50,64%	32,98%	100,00%
APORTACIONES 2016	1.430.711.514	4.423.152.080	2.880.638.935	8.734.502.529

2016 urtearen Egokitzapenerako Funts Orokorraren Likidazioa Liquidación del Fondo General de Ajuste

2016ko bilketaren itxiera ikusita, Doitze Funts Orokorrari 103,4 Milioi €-ko zuzkidura egingo zaio, Araba eta Gipuzkoaren artean 59,5 milioi € eta 43,9 milioi € banaturik, hurrenez hurren. Bi lurraldeetako bilketa-koefizientea, zenbateko horiei esker, koefiziente horizontalaren % 99ra helduko da.

**FONDO GENERAL DE AJUSTE 2016**
2016ko EGOKITZAPENERAKO FUNTS OROKORRA

€

GOBIERNO VASCO <i>EUSKO JAURLARITZA</i>	70,04%	72.436.038
DIPUTACIONES FORALES <i>FORU ALDUNDIAK</i>	29,96%	30.984.918
Araba / Álava		5.075.330
Bizkaia		15.690.762
Gipuzkoa		10.218.826
TOTAL <i>GUZTIRA</i>		103.420.956

Distribución Fondo General de Ajuste:

Egokitzapenerako Funts Orokorraren banaketa:

Araba / Álava	59.506.589 €
Gipuzkoa	43.914.367 €

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 13 de febrero 2017